

# OSASUNARI ETA GENEROARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA

Ikastaroan ikusiko dugunez, generoa erabakigarria da osasunean, bai pertsonen bizi-baldintzetan desberdinkeriak eragiten dituelako, bai genero-joera androzentristek medikuntzari eta osasun-arretari buruz ditugun ezagutzetan eragiten dutelako.

Generoaren eta aniztasunaren ikuspegia osasunean aplikatzeko oinarriko urratsak aurkeztuko ditugu.

## IRAUPENA ETA DATAK

4 aste

Euskara. Azaroaren  
4tik abenduaren 2ra

Gaztelania. Irailaren  
2tik 30era

## MATRIKULA

Irekita, aldez aurretiko  
eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 30  
prestakuntza-ordu

## HELBURUAK

- Osasunaren alorreko emaitzak sexuarekin, genero-arauekin, rolekkin, harremanekin eta osasunaren beste faktore erabakigarri batzuekin lotuta daudela jakitea eta horren kontzientzia areagotzea.
- Begirada kritikoa ematea, osasun- eta gaixotasun-prozesuetan generoagatik sortzen diren desberdinkeriak ikusarazi eta zuzentzeko.
- Generoan oinarrituta osasun-arloa bidezkoa ez izatea eragiten duten faktore biologikoak, sozioekonomikoak eta norberaren nahiz inguruneko bizi-baldintzak aztertu eta aintzat hartzea.
- Generoa aztertzeko eta analisi hori osasun publikoko testuinguru batean aplikatzeko hainbat trebetasun analitiko eraikitzen hastea.
- Genero-ikuspegiaren onurak ulertzea, osasun-arloko ekitate ezak benetan murrizteari dagokionez.



# OSASUNARI ETA GENEROARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA

## UNITATE DIDAKTIKOAK

1. modulua

Genero-ikuspegia osasunean ulertzeko eta txertatzeko funtsezko kontzeptuak.

2. modulua.

Genero-joerak.

3. modulua.

Osasunaren azterketan genero-ikuspegia ez sartzearen ondorioak.

4. modulua.

Gomendioak eta jarduera onak.

## IRAKASLEAK

**Amaia Bacigalupe**, Soziologian Lizentziatua (UPV/EHU), Politika Publiko eta Sozialetan Masterra (UPF) eta Osasun Publikoan Doktorea (UAB). UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko Irakasle Titularra da. OPIK-Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldeko Ikertzaile Nagusia da.


**Marta Jiménez**, Medikuntzan lizentziatua (uam), Lehen Mailako Arretan espezialista (familia eta komunitateko medikuntza). Giza Eskubideen Masterra (UAM) eta Osasun Publikoan Graduondokoa. UPV/EHUko Osasun Publikoko Doktoretza programako ikaslea. Opik eta BioCruces Bizkaia ikerketa taldeko kidea.

**Xabi Martínez**, Farmazia Gradua (UPV/EHU) eta Osasun Publikoko Masterra (UPV/EHU). Gaur egun, OPIK-Osasunaren Gizarte-Baldintzatzaile eta Aldaketa Demografikoari Buruzko Ikerketa Taldeko kidea

## IKASTAROAREN MODALITATEA ETA BALDINTZAK

**Autoprestakuntza.** Ikastaro hau ikasleek modu autodidaktikoan ikas dezaten diseinatuta dago. Ikastaroak hainbat material teoriko eta aprobetxamendu-proba izango ditu, irakasleek parte hartu gabe.

Proba horiek gainditu ondoren, egiaztagiria eskuratzen da.



## IRAUPENA ETA DATAK

4 aste

Euskara. Azaroaren  
4tik abenduaren 2ra

Gaztelania. Irailaren  
2tik 30era

## MATRIKULA

Irekita, aldez aurretiko eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 30  
prestakuntza-ordu

